

LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Hirugarren Hiruhilekoa 2024

EDUKIA

Testuinguru ekonomikoa.....	4
Lanbiden erregistratutako langabezia.....	5
Afiliazioa Gizarte Segurantzari.....	6
Kontratutako pertsonak eta kontratuak.....	7
Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA).....	8

*Txosten honek, **2024ko hirugarren hiruhilekoan**, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez.*


Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzari eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal estatistika Erakundearen “Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta”, BJA).

Testuinguru ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) urtez urteko bilakaerak %2,0ko hazkundea erakusten du hirugarren hiruhilekoan, 2024 urte osorako aurreikusten den hazkundea %1,9koa izanik


Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokionez, EAEko ekonomia %2,0 hazi da hirugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Iturri beraren arabera, 2024an EAEko BPG-a %1,9ra helduko da, eta 2025ean hazkunde-tasa %2,1ean kokatuko da.

“Koiuntura DI-DA batean 2024ko urria” txostenaren arabera, EAEko ekonomiaren termometroa 95,9ko balioan kokatu zen abuztuan, azken hilabeteetako goranzko joerarekin amaituz, baina hazkunde-eremutik getu eta urte hasierako erregistroen gainetik dagoen maila mantenduz. Europako industriaren koiunturak ez du hobera egiten eta honek ez du EAEko industriaren dinamismo handiagoa ahalbidetzen; aitzitik, eraikuntzak eta zerbitzuek jarduera-maila handiagoa erakusten dute, kontsumoak bezala, eskariaren aldetik, nahiz eta zerbitzuen kasuan hazkunde hori leundu egiten den enplegu-zifren moderazioarekin.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, “Koiuntura DI-DA batean 2024ko urria” txostena.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2023 urtean, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, %2,7koa izan da. Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %2,4koa da 2024 urterako eta 2025 urterako %2,1koa. Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2023 urtean, Eurostat-en arabera, %0,4koa izan da. Consensus Forecast-en arabera, 2024rako BPG-aren urte arteko aldakuntza-tasaren aurreikuspena %0,7koa da eta 2025 urterako %1,3koa.




Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, “Koiuntura DI-DA batean 2024ko urria” txostena.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %1,5 igo da: +1.310 emakume eta +319 gizon

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulego-etan erregistratutako langabe kopurua %1,5 igo da 2024ko hirugarren hiruhilekoan (+1.629 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 107.996 pertsonakoa izan da, urte arteko igoera %1,2koa izanik.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.310 pertsonatan igo da emakumezkoen artean eta +319 pertsonatan gizonen artean. Emakumezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 62.983 pertsonatan kokatu da eta 45.013 pertsonatan gizonen artean.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren igoerarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 25-34 urte bitarteko segmentuan gertatu da (+964); ondoren, 16-24 urte bitartean (+422); 35-44 urte bitartean (+194) eta 55-64 urte bitartean (+82). Langabetu kopuruan jaitsiera izan duen adin tarte bakarra 45-54 urte bitartekoena izan da (-33).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian %1,9ko igoera eman da; jarraian Araba (+%1,3) eta Gipuzkoa (+%0,9).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %0,4 jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %2,0 igo da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 19.776 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 88.218 pertsonatan.


Ikasketak mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duen taldea Unibertsitate ikasketak dituztenena izan da (+%11,4); jarraian, Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (+%3,6) eta Batxilergo ikasketak dituztenak (+%2,3). Oinarrizko ikasketak dituztenen taldea izan da jaitsiera izan duen bakarra (-%1,5).

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan igoera handiena izan duen sektoreak hurrengoak izan dira: hezkuntza (+518); txikizkako merkataritza (+257) eta egoitza-establezimenduetako laguntza (+251). Langabetu kopurua jaitsi den jardueren artean, hurrengoak nabarmentzen dira: jaki eta edari zerbitzuak (-225) eta nekazaritza, abeltzaintza (-156).

Afiliazioa Gizarte Segurantzian


Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.007.609 pertsonatan kokatu da, aurreko hiruhilekoan baino %1,2 gutxiago (-12.164 pertsona)

EAEEn 2024ko hirugarren hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 1.007.609 pertsonatan kokatu da: aurreko hiruhilekoan baino %1,2 gutxiago (-12.164 pertsona) eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,3 gehiago.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %52,2 gizonezkoak dira eta %47,8 emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gutxiago).



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,2); jarraian Gipuzkoan (%33,4) eta Araban (%16,5). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian 6.086 pertsonatan jaitsi da afiliatu kopurua; Gipuzkoan -3.892 eta Araban -2.186.


Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, afiliatu gehien izan dituzten jardura atalak hurrengoak izan dira: *Manufaktura industria* (%17,4), *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motor-dunen konponketa* (%13,5); eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%11,7). 2024ko hirugarren hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan jaitziera jasan duten jardura atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Hezkuntza* (-7.542); *Administrazio Publikoa* (-1.238) eta *Manufaktura Industria* (-1.225). Beste aldetik, igoera handienak hurrengo jardueretan eman dira: *Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak* (+2.228) eta *Administrazio jarduerak* (+577).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %1,3 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua 97.759 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %9,7koa da, afiliatu autoktonoena %90,3koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %2,0 igo da eta emakumezkoen afiliazioa +%0,4. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Araban %2,8 igo da, Gipuzkoan +%1,0 eta Bizkaian +%0,9.

Kontratutako pertsonak eta kontratuak

Hirugarren hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %5,5 igo da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 190.069koa izan da

2024ko hirugarren hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 113.527koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %5,5 gehiago. Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %7,1eko igoera izan da; gizonezkoen artean +%4,0koa.




Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %42,8k Derrigorrezko ikasketak ditu, %23,7k Batxilergo ikasketak, %17,9k Unibertsitateko ikasketak eta %15,3k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2024ko hirugarren hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 24 urtetik beherako pertsona taldea nabarmendu da, %30,4ko pisuarekin; 25-34 urte bitarteko taldeak jarraitzen dio (%25,6). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatutako pertsona kopuruaren igoerarik handiena 24 urtetik beherako taldean gertatu da (+%13,3); 35-44 urte bitarteko taldea izan da beherakada izan duen bakarra, txikia izan bada ere (-%0,2).

Nazionalitateari dagokionez, kontratatutako pertsonen %79,6a bertakoak dira eta %20,4k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,2 puntu gutxiago). Atzeritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%52,1), Europar erkidegokoa eta ez erkidegokoa (%14,0), Afrika iparraldekoa (%13,9) eta Saharaz hegoaldekoa (%12,0).

Hirugarren hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari** dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 190.069 kontratu erregistratu dira (kontratutako pertsonak baino 1,7 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %1,2 igo da sinatutako kontratu kopurua.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan-kontratu motaren arabera, joera berdina jarraitzen du: sinatutako kontratuen %22,8 kontratu mugaga-beak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,1 puntu gutxiago) eta %77,2 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %35,7 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokionez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan eta Bizkaian igoerak eman dira sinatutako kontratu kopuruari dagokionez (+%2,5 eta +%1,6 hurrenez hurren). Araban, ostera, %1,7ko jaitsiera eman da. Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%48,9; 92.899); jarraian Gipuzkoa (%31,4; 59.700) eta Araba (%19,7; 37.470).

Jarduera Ekonomikoei dagokionez, kontratu kopuru gehien izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: *Ostalaritza* (%13,8), *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%12,8) eta *Manufaktura industria* (%12,4). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea *Manufaktura industria* da (%18,5) eta emakumezkoen artean *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%20,1).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia-tasa %7,1ekoa izan da eta okupazio-tasa %52,5ekoa

Aztertutako hiruhilekoan, EAeko **okupazio-tasa**ⁱ %52,5ekoa izan da (%57,3 gizonezkoen kasuan eta %48,0 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua gutxira 997.100ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 4.500 pertsona gehiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 521.900ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,2 gehiago); emakumezkoen kasuan, ostera, landunen kopurua 475.200 pertsonatan kokatu da (aurreko hiruhilekoan baino %0,3 gutxiago).

Adinari dagokionez, okupazio-tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%81,3), 395.500 landun. Bestalde, okupazio-tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%29,2), 59.200 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 25-44 urte bitartekoena izan da (+%1,1); jarraian, 45 urte edo gehiagokoena taldea (+%0,1). 16-24 urte bitarteko taldeak %1,2ko jaitsiera izan du.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da okupazio-tasarik handiena izan duena (%54,4), jarraian Araba (%52,7) eta Bizkaia (%51,2). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian %0,8ko igoera eman da eta Gipuzkoan %0,7koa. Araban, ostera, %1,3ko jaitsiera eman da landun kopuruari dagokionez.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, *Zerbitzuen sektorea* izan da okupatu gehien izan duena (%73,4). Ondoren, *Industria sektorea* (%20,1), *Eraikuntza sektorea* (%5,6) eta *Lehen sektorea* (%0,9).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %79,9k kontratu mugagabe-finkoak izan dituzte EAEn eta %19,3k aldi baterako kontratuak. **Lanaldi motari** dagokionez, soldatapekoen %82,4k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %17,4k lanaldi partzialekoak.

Hirugarren hiruhilekoan, EAeko **langabezia-tasa** %7,1era jaitsi da (%6,8 gizonezkoen artean eta %7,6 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 76.700 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 3.400 pertsona gutxiago (gizonezkoen kasuan %6,9 jaitsi da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan -%1,3).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%6,1); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%7,8) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%12,2). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua jaitsi egin da adin talde guztietan: 16-24 urte bitartekoenean -%12,8; 25-44 urte bitartekoenean -%3,7 eta 45 urte edo gehiagokoenean -%2,5.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%5,3), jarraian Bizkaian (%8,0) eta Araban (%8,2). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopuruan jaitsierarik handiena Bizkaian izan da (-%7,1); jarraian Gipuzkoan (-%3,6). Araban, %6,4ko igoera eman da.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %72,8 bertakoak dira; atzeritarrak, beraz, %27,2.

ⁱ Eustatek erabiltzen duen okupazio-tasaren definizioa Eurostaten eta INEren enplegu-tasaren baliokidea da.